

Operazio honekin jasagarritasunarekin duen konpromisoa berretsi du bankuak eta Ebazpen Batzorde Bakarrak ezarritako MREL eskakizunak bete ditu

Kutxabankek 500 milioi euro kokatu ditu bonu berdeen bigarren jaulkipenean

- Bonoen prezioa mid-swapen gainera oinarritzko 155 puntutan ezarri da, 3 eta 4 urte bitarteko amortizazio epearekin
- Ingurumenean eragin positiboa duten aktibo eta proiektuetara likidezia bideratzeko Bankuaren helburu estrategikoekin bat dator

2023ko ekainaren 6an. Kutxabankek eskakizun-maila handiko testuinguruan lehen mailako zor berde ez-preferentearen bigarren jaulkipenaren 500 milioi euro kokatu ditu. Bonoen errentagarritasuna **mid-swapen gainera oinarritzko 155 puntutan** finkatu da, jaulkipen hauetan erabiltzen den erreferentzia baita, 4 urteko amortizazio-epearekin, eta 3 urtetan aldeztu aurretik amortizatzeke aukerarekin.

Jaulkipenaren % 55 kalitate handiko nazioarteko inbertsore instituzionalek harpidetu du, eta % 58 'inbertsore berdeak' izan dira. Operazioak Norbolsa, BoFA, DB, Natixis eta Santander izan ditu ezartzaile.

Jasotako erosketa-aginduen kalitateak, baita kokapen-bankuek jasotako erantzun positiboak ere, nazioarteko inbertsoreek Kutxabanken kreditu-kalitatean duten konfiantza erakutsi du beste behin. Izan ere, **Moody's, Fitch** eta **DBRS** nazioarteko agentziek finantza-alorreko tresna hauek duten baloraziorik onenetakoak eman dizkiote Kutxabanki, **Baa2/BBB+/BBBH** hurrenez-hurren.

Kutxabankek marko estrategikoa du, **ingurumenean eragin positiboa** duten egitasmo eta aktiboetara likidezia bideratzeko, karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioan edota finantza jasagarrien garapenean laguntza aktiboa emateko. Honela, inbertsioak jaso ditzaketen proiektuen artean daude eraikin energetiko eraginkorrak edo energia berriagarriak.

Gaurko jaulkipenarekin, **Ebazpen Batzorde bakarrak ezarritako helburuak bete ditu** Kutxabankek. Espainiako finantza-sistemako MREL eskakizun baxuena du, ikuskatzaileak finantza-taldearen kaudimenean eta erresoluzio gaitasunean daukan konfiantzaren erakusle.

Eskakizun horien arabera, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera berezko fondoen eta pasibo onargarrien bolumena era kontsolidatuan arriskuaren esposizioarekiko (TREA) % 17,60an

kokatu beharko da gutxienez, eta % 5,27an palankatze-ratioarekiko (LRE). Gainera, helburu ertain loteslea ezarri zuen 2022ko abenduaren 1erako, % 16,59ko TREA eta % 5,25eko LREkoa.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako banku nagusia da. 700 bulego baino gehiago ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madriren eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.